



MAHAI SEKTORIALEKO SINDIKATUEK ESKATU ARREN, OSASUN SAILAK ALDEBAKARREKO BIDEAN JARRAITZEN DU

SATSE, ELA, LAB, SME, CC00 eta UGT sindikatuek kezka azaldu diote Sailburuari Osakidetzak azkenaldian izan duen noraezagatik, eta plantillak pairatzen dituen arazoei irtenbidea emateko eta Mahai Sektoriala benetako negoziazio-foro bihurtzeko konpromisoa eskatu dute.

2022. urtea Osakidetzako langileek eta herritarrek kaleak hartu dituzten urtea izan da, osasun-politika publikoetan norabidea aldatzea eskatzeko eta gure osasun-sistemaren desegitea berehala gelditzeko.

Lau izan dira gehiengo sindikalak asistentzia-maila guztietan deitu dituen greba-egunak, eta milaka pertsona izan ziren urtarrilaren 23an, otsailaren 26an eta ekainaren 26an deitutako manifestazioetan, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko kaleak gure osasun publikoaren alde bete dituztenak.

Bitartean, Gotzone Sagarduik zuzentzen duen Osasun Sailak eta Osakidetzako Zuzendaritzak beren ibilbide-orriarekin jarraitu dute, hau da, osasun-sistema publikoa desegitea eta plantillaren legezko ordezkaritzarekin dagoen edozein zubi eraistea.

Santiago Ospitaleko larrialdiak itxi egin dira, Etengabeko Arretako Guneetako ordutegiak eta zerbitzuak murriztu egin dira (Zumarragan edo Deustun, adibidez), Basurtuko Ospitaleko Bihotzeko Kirurgia itxi nahi izan da, eta langileak itotzen jarraitzen da, lan-eskubideetan atzera eginez eta nahiz eta legeak aldi baterakotasuna % 8ra jaistea eskatzen duen arren, %58ko tasetan mantentzen da.

Era berean, Mahai Sektorialaren foroa erabiltzen da existitzen ez den elkarrizketa eta negoziazio itxura egiteko, eta horretan, sindikatuek ez dugu inolako zereginik. Horregatik, behin baino gehiagotan altxatu gara eta mahai horretatik kanpo geratu gara, ez ordezko bitartekoak proposatu gabe, hala nola Lan Harremanen Kontseilua. Osakidetzako arduradun nagusiek bi aldiz erabaki dute mahai horretara ez joatea.

Osakidetzako Zuzendaritza negoziatzeko solaskide balioduna ez dela ikusita, sindikatuok Osasun Sailari dei egin diogu aurreko guztiaren berri emateko.

Hala ere, sindikatuok eskatuta gaur egindako bileran, horma batekin topo egin dugu, hartzen ari diren erabaki guztien erantzukizuna hartzen ez duena. Aitzitik, Mahai Sektoriala negoziazio-gune ez izateko erabakiari eusten dion sailburu batekin egin dugu topo, eta Osakidetzaren murrizketa- eta desegite-politikarekin jarraitzea erabaki du.

Mahai Sektorialeko sindikatuok Osasun Sailari negoziazio-dinamika aldatzeko benetako konpromisoa hartzea proposatu diogun arren, ez dugu aldaketa hori egiteko inolako borondaterik aurkitu.

Konpontzen ez badugu, aurtengo ekainean iragarritako kultura-aldaketak aurrera jarraituko du, eta orain arte izan dugun arretaren kalitate-galera are okerragoa izango da datozen hilabeteetan.

Euskal Herrian, 2022ko abenduaren 7an.